

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 2116

*544/2017 EBAZPENA, apirilaren 3koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia-rena, Barrualde-Galdakao Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari mediko lanpostua bete dezan, Jesús Manuel Suárez Romay jauna izendatzeko dena.*

Barrualde-Galdakao Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari mediko lanpostua betetzeko deialdia aztertu da; deialdi hori Zuzendaritza Nagusi honen otsailaren 28ko 376/2017 Ebazpenaren bitartez egin zen, eta 2017ko martxoaren 16ko EHAA n argitaratu (53. zenbakia).

Eskabideak aurkezteko epea amaitu da, eta lanpostu horretan jarduteko hautagai bakarrak aurkeztu dituen agiriak aztertu dira, baita bere baldintza profesionalak baloratu ere, curriculum vitaen jasotako merezimenduen arabera.

Aurkeztutako agiriak aztertuta, ikusi da Jesús Manuel Suárez Romay jauna deialdiko lanposturako egokia dela eta bertan jarduteko behar bezalako trebakuntza duela.

Hori guztia dela-eta, Zuzendaritza Nagusi honek

#### EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Jesús Manuel Suárez Romay jauna Barrualde-Galdakao Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari mediko izendatzea.

Bigarrena.– Izendapen honek 2017ko apirilaren 24tik aurrera izango ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko apirilaren 3a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,  
MARÍA JESÚS GEMMA MÚGICA ANDUAGA.